

Mobilizazioei ekingo diete Envases Metalurgicos-en hitzarmen eta lan-baldintza duinen alde

Aluminiozko ontziak egiten dituen enpresa da Envases Metalurgicos, lan-talde gazte duena egondako belaunaldi aldaketaren ondoren.

Honen ondorioz, enpresak lan-baldintza ezberdinak eskaini dizkie kontratazio berriei eta honek langileak gustora ez egotea ekarri du. Horregatik, hitzarmen berriaren negoziazioa inflexio puntutzat jo dugu alde ekonomiko hauek konpontzeko, eta baita ABLE bidezko kontratazioa ere, nagusiki emakume eta aldi baterako kontratuei eragiten diena.

Horregatik, aurkeztu genuen eta oraindik defendatzen dugu plataformak, honako puntuak jasotzen ditu: bidezkoa izango den sailkapen profesionalerako sistema arautzea, behin trebakuntza aldiak pasatuta egiten ditugun lanen aitortza edukitzeko; izoztu egin zuten eta 2013ko abenduaren 31tik aurrera egindako kontratazioei kendu zitzaizen aintzinasun plusa berreskuratea; ABLE bidezko gehienezko kontratazio aldiak arautzea eta aldi-baterako kontratuekin (enpresarenak zein ABLE bidezkoak) zenbait urte daramatzaten langileak finkoak bihurtzea.

Enpresaren proposamena ez zaigu nahikoa iruditzen, urte birako soldata-igoera soilik planteatzen duelako eta hobekuntzaren bat ordaindutako lizentziaren baten.

Horregatik eta hitzarmena eta lan-baldintza duinen defentsan, honako mobilizazioak deitu ditugu, eta jarraipena emango diegu blokeoak bere horretan irauten duen bitartean.

- Abenduak 18, ostirala. Kontzentrazioa enpresan 13:00etatik 14:00etara.
- Abenduak 21, urtarrilak 7 eta urtarrilaren 11n 2 ordutako lanuztea txanda bakoitzean.
- Urtarrilaren 18an 24 ordutako greba.

Laudion, 2020ko abenduaren 17an